



# LANBIDE HEZIKETA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretutik eratorritako neurriek eta betebeharrak, eta Diputatuen Kongresuaren baimenarekin onartu behar izan diren alarma-egoeraren ondoko ondoko luzapenek, aurrez aurreko hezkuntza-jarduera ez ezik, **lantokietako prestakuntza-aldiak ere eragozten dituzte**. Honen harira, Hezkuntza Sailak apirilak 20an zirkular baten bidez "2019-2020 IKASTURTEAREN ITXIERA, COVID-19k SORTUTAKO EGOERAREN ONDOREN" izeneko instrukzio batzuk atera zituen. Instrukzioaren paragrafo batean honako hau irakurri dezakegu: "**Aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera hasteko baimena ematen denean, ikasleek prestakuntza horri berriro ekin ahal izango diote enpresan edo ikastetxean, ...**".

Gaur goizean, lanbide heziketako ikastetxeek, Lantokietako Prestakuntzaren inguruko instrukzio berriak jaso dituzte Hezkuntza Saitetik, non bertan holako arau haustek topatu ditzakegun:

*"Aipatutako lehen helburuari dagokionez, hau da, lantokietan Lantokiko Prestakuntzako modulua egiteari dagokionez, eta hori ikastetxean egiten ez denez, honako jarraibide hauek ezartzen ditugu:*

*1- Lantokiko Prestakuntzari 2020ko maiatzaren 18an (astelehena) ekiteko gure hasierako planteamenduari eusten diogu."*

Errege Dekretutik eratorritako neurriek eta betebeharrak argi uzten dute aurrez aurreko hezkuntza baimentzen ez den bitartean, lantokietako prestakuntza-aldiak ezin direla burutu. Errege dekretuaz gain, Hezkuntza Sailak apirilak 20an atera zuen zirkularrak ere berdina dio, aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera hasteko baimena ematen ez den bitartean lantokietako prestakuntzarik ez dela izango. Gaurko egunez, aurrez aurreko irakaskuntza eman ezin denean, Hezkuntza Sailak nolaz bidali ditzake ikasleak lantokietara Errege Dekretua eta beraiek landutako instrukzioak hausten dituenen? STEILASetik Hezkuntza Sailari instrukzio hau bertan behera uztea eskatzen diogu.

**"Aurrez aurreko hezkuntza baimentzen ez den bitartean, lantokietako prestakuntza-aldiak ezin dira burutu!!!"**

**GURE SEGURTASUN TA OSASUNAREKIN EZ JOLASTU!!**



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus